

Joxe Mari Korta, una década de ausencia.

Zentro honen proiektua abian jarri zenetik, ez genuen izan dudarik, zentro honen izenak arlo zientifikoaren eta enpresa munduaren arteko kooperazioaren eta hurbiltasunaren isla izan behar zuen. Eta izena erabakitzen hasita, ez genuen arazo handirik izan Joxe Mari Korta izena aukeratzeko. Joxe Mari Kortaren izena jarritakoan, euskal enpresaria omendu nahi izan dugu, nagusiki bere ibilbide profesionala eta giza baloreak haintzat hartuz.

2005eko Otsailaren 18an Joxe Mari Korta zentroaren lehenengo harria jarri genuenean, Pedro Miguel Etxenikereren eskutik Unibertsitateak omenaldi txiki bat egin nahi izan zion Joxe Mari Korta zenari. Baina omenaldi xume horrek urteetan zehar hor jarraituko du, betiko, eraikina eta bertan garatzen eta zabaltzen den ezaguera hor egongo baitira betiko, eta euren eskutik beti izango dugu gogoan Joxe Mari Korta.

Eta gaur, hamar urte pasa eta gero, Pedro Miguel Etxenikereren hitzak hona ekartzea gustatuko litzaiguke:

“Neri dagokidanez, beti miretsi izan ditut, bere herrian sustraiturik mundu zabaleko ateak iriki izan dituztenak, euskara eta teknologiarik aurreratuenak uztartzen dakitela erakutsi izan dutenak. Eta hortan, lekukotasun bikaina utzi digu Joxe Mari Kortak. Bera jaio zeneko baserrian sortu zen lantegiko buru zela, egin ziren, adibidez, Arianne proiektu europarraren baitan erabilitako zenbait tresnenezako bolazko husiloak. Puntako teknologia ezinbestekoa da, horrelako proiektu aurreratueta parte hartzeko. Eta teknologiaren bidean aurrera egiteko, zientziaren ekarriak ezinbestekoak dira. Horregatik zen Joxe Mari Korta, jakin minaren arra bere baitan zuena, sustrai hori ere ezinbestean behar zuelako, bere lantegiko gizon-emakume denei bizibide erosoagoa eta hobea eskaini ahal izateko.

“Le conocí a través de unas reuniones, allá por el comienzo de la década de los 80 para dar respuesta a las necesidades tecnológicas de las empresas, a través de la formación de sus operarios.

Allí surgió, como siempre, el espíritu y la visión de futuro de Josemari.

Se encargaba de llamar a las empresas para que no faltaran a las reuniones.

Nos explicaba una y otra vez su visión. Creía a pies juntillas que el futuro de las empresas pasaba por dos cuestiones principales, la formación continua de los trabajadores y la máxima inversión en nuevas tecnologías.

Se le miraba como si fuera un orate o un utópico. No era común por aquel entonces que alguien apostara tan fuerte por la formación, a no ser a nivel teórico en conversaciones, por lo que se le miraba de forma especial”. (Antonio Otaegui Aramburu.)

Como Presidente de Adegí insistió en que la cooperación de la empresa con la universidad es un requisito imprescindible si queremos apostar por un crecimiento económico sostenido que genere riqueza y empleo.

Él siempre tenía presentes la innovación, los jóvenes, el trabajo bien hecho, la formación y la investigación.

En los últimos años, y lo será más en el futuro, las sociedades líderes han sido aquellas que han dispuesto de un buen sistema de formación e investigación. El sistema universitario y de investigación es uno de los activos más importantes de un país.

.....

Zergatik erail dute orduan?

Indarrez, bortxaz, derrigorrez errenditu ezineko arima zuen Joxe Marik. Horixe zen bere gizabidearen erroko ardatza. Eta arima hori saltzea, bere buruari uko egitea, eskatu zion ETAk. ETaren erasoari men egin izan balio, bere arima saldu izan balu, ez zioten azpikeriz lapabonbarik lehertuko. Arima hori saldu edo galtzen duen gizakiak eta herriak, ordea, uko egiten dio bere buruaren jabe izateari, eta inoren morroi bihurtzen du bere burua.

Joxe Mariren-inoren- bizitza eteteko eskumenik ez du ETAk. Horregatik, ETak bidegabeki eten duena, guk bidez eta bidetik jarraiaraztea nahi dugu. Eta horretan saiatuko gara. Hala ematen dugu gure hitza.(Bidetik)

Nik Joxe Mari Korta gizonari buruz, dudan iritzia azaltzeko, hitzak ezin aurkitu ibili naiz. Ez baitut nik, hitzekin, ezta beste gauzekin ere, besteek duten talentua. Gure klasikoetara joan naiz argi bila eta han aurkitu dut, Mitxelenarenean, Korta gizonari buruz esan nahi nuenaren esabidea.

Gizona bezela, eta hauxe da noski lehenbizikoa, ezin hobea da Kortak utzi digun eredua. Bere sendiari eta jaioterriari eskeini zizkien hartu zituen dohaiak oro eta haiei lotua iraun du azkenera arte etengabeko lanean haien alde. Obra mardula utzi digu eta bizitza-eredu beteagoa. Egiatzko gizon, egiatzko lankide, egiatzko euskalduna eta euskaltzale. Euskal Herriaren seme jator, ez hitzez eta oihuz, eguneroko lanaren lanez baizik. Goiain bego eta bildu zigun uzta onerako izan bekigu, bizi zitzaigunean bezalaxe.

Ya me gustaría a mí, y creo que a todos, si al final de la jornada se pudiese decir de nosotros lo que con tan sincera unanimidad se ha dicho de él, que no sólo era un gran empresario, sino un gran ciudadano y un gran hombre. Nos ha legado lo más importante que nos puede legar una persona, su familia, su liderazgo en el trabajo, su amor a su pueblo, a todos los pueblos, y el ejemplo de su vida. El esfuerzo de todos hará que este centro cuya primera piedra hoy colocamos esté a la altura de ese ejemplo.” (Pedro Miguel Etxenike Landiribar, 2005eko otsailaren 18an)